

## ETZAITUGU MAITE

Maitea zara, gaitzik bageko,  
Euskera garbi txit begikoa,  
Akatsik iñoiz izan bakoa.  
Zer jazo yatzu guk baztertzekeo?

Bikain ta bakar lorategian,  
Lore guztien lora beratza;  
Etsaiak jopuz zure aratza  
Loi darabille lotsa gorrian.

Baztertuz zoaz. Geu gara etsai,  
Zure ederraren ausle dongeak,  
Amil-beera bultz dagitzugunak.  
Guk ez, antza, zu yaukal ikus nai?

Ba-da andi izate gorroto dauna,  
Biotzez ta itzez maite zaituna.  
Zure edertasun neurrik eztauna  
Gordetzen dauan koplari ona.

DEUNORO

## AURRERAPENA?

Ba-dator «aurrerapena»  
aunitzek deitzen diotena,  
pakea lapurtzera,  
ta gure oitura zarrak  
erroz ukatzera.  
Emen da makiña otsa  
lua galdutzera,  
beltzen jazz musika  
ametsa iltzera.

Gaurko gizabideak,  
traketsez ugariak;

indartzeko gaizkeriak,  
edari mozkortiak.

Ortik libratzeaz ero?  
Mundua zerbait geiago  
ez ote da gero?  
Orrelako aurrerapena  
ez baita gogoaren giro.

«Aurrerapena» ori?  
Bada paradoja ugari,  
egizaleen kaltegarri.

OTSALAR

## ANTONIO MACHADO'RI

*(Bere eriotzako 20'gn. urte-buruan, omenex)*

Parnaso barrutian  
bizi-bide zoriz  
egunak eta gauak  
jantziaz olerkiz,

Bizitza igaro zuen  
gizonki kantatuz,  
garaieri argia  
ausarti urratuz.

Iturburu sendoa  
barrutik dario,  
lur-bira guziari  
sorturikan giro.

Zabalduz asetzeko  
edari xarmanta;  
edanak-edanala  
asetzerik ezta.